# ÍNDICE
# AURKIBIDEA


pág. **9** or.
Introducción
Sarrera

pág. **17** or.
Planteamiento del trabajo
Lanaren nondik norakoa

pág. **25** or.
Resultados
Emaitzak

Aves del Campus
Campuseko hegaztiak

pág. **33** or.
Aves con mayor presencia
Sarritan ikusten diren hegaztiak


pág. **34** or.
Gorrión común
Etxe-txolarrea


pág. **36** or.
Estornino negro
Arabazozo beltza


pág. **38** or.
Mirlo común
Zozo arrunta


pág. **40** or.
Urraca común
Mika


pág. **42** or.
Paloma bravía
Haitz-usoa


pág. **44** or.
Petirrojo europeo
Txantxangorria


pág. **46** or.
Pinzón vulgar
Txonta arrunta


pág. **48** or.
Lavandera blanca
Buztanikara zuria

pág. **51** or.
Aves con presencia relevante
Kopuru nabarmeneko hegaztiak


pág. **52** or.
Jilguero europeo
Karnaba


pág. **54** or.
Herrerillo común
Amilotx urdina


pág. **56** or.
Serín verdecillo
Txirriskil arrunta


pág. **58** or.
Vencejo común
Sorbeltz arrunta


pág. **60** or.
Curruca capirotada
Txinbo kaskabeltza


pág. **62** or.
Verderón común
Txorru arrunta


pág. **64** or.
Mosquitero común
Txio arrunta


pág. **66** or.
Carbonero común
Kaskabeltz handia


pág. **68** or.
Papamoscas cerrojillo
Euli-txori beltza


pág. **70** or.
Agateador europeo
Gerri-txori arrunta


pág. **72** or.
Chochín común
Txepetxa


pág. **74** or.
Avión común
Enara azpizuria


pág. **76** or.
Zorzal común
Birigarro arrunta


pág. **78** or.
Paloma torcaz
Pagausoa


pág. **80** or.
Colirrojo tizón
Buztangorri iluna


pág. **82** or.
Reyezuelo listado
Erregetxo bekainzuria


pág. **84** or.
Jilguero lúgano
Tarina


pág. **86** or.
Papamoscas gris
Euli-txori grisa


pág. **88** or.
Ruiseñor común
Urretxindorra


pág. **90** or.
Picogordo común
Mokolodia


pág. **92** or.
Milano real
Miru gorria


pág. **94** or.
Mito común
Buztanluzea


pág. **96** or.
Ánade azulón
Basahatea


pág. **98** or.
Cernícalo vulgar
Belatz gorria


pág. **100** or.
Pardillo común
Txoka arrunta


pág. **102** or.
Tórtola turca
Usapal turkiarra


pág. **104** or.
Milano negro
Miru beltza


pág. **106** or.
Oropéndola europea
Urretxoria


pág. **108** or.
Golondrina común
Enara arrunta


pág. **110** or.
Pico picapinos
Okil handia


pág. **112** or.
Cetia ruiseñor
Errekatxindorra


pág. **114** or.
Lavandera cascadeña
Buztanikara horia


pág. **116** or.
Colirrojo real
Buztangorri argia

pág. **119** or.
Aves con menor presencia
Gutxitan ikusten diren hegaztiak


pág. **120** or.
Zorzal alirrojo
Birigarro txikia


pág. **120** or.
Acentor común
Tuntun arrunta


pág. **122** or.
Zarcero políglota
Sasi-txori arrunta


pág. **122** or.
Estornino pinto
Arabazozo pikarta


pág. **122** or.
Gorrión molinero
Landa-txolarrea


pág. **124** or.
Gaviota reidora
Antxeta mokogorria


pág. **124** or.
Grajilla occidental
Belatxikia








pág. **124** or.
Alcaudón dorsirrojo
Antzandobi arrunta


pág. **126** or.
Cogujada común
Kutturlio arrunta


pág. **126** or.
Mosquitero ibérico
Txio iberiarra


pág. **126** or.
Corneja negra
Belabeltza


pág. **128** or.
Curruca zarcera
Sasi-txinboa


pág. **128** or.
Águila calzada
Arrano txikia


pág. **128** or.
Cistícola buitrón
Ihi-txoria


pág. **130** or.
Gavilán común
Gabiraia


pág. **130** or.
Bisbita pratense
Negu-txirta


pág. **130** or.
Bisbita alpino
Mendi-txirta

pág. **133** or.
Listado alfabético de las aves
Hegaztien zerrenda alfabetikoa

# INTRODUCCIÓN
# SARRERA

La Universidad Pública de Navarra cuenta con tres campus: el de Arrosadia y el de la Facultad de Estudios Sanitarios, en Pamplona, y el de Tudela. El primero de ellos, donde se ubica la mayor parte de las enseñanzas y la gestión de la Universidad, presenta un espacio natural amplio y cuidado que de manera paulatina se ha ido convirtiendo, además de en un entorno de convivencia para la comunidad universitaria, en un lugar también de paseo para el vecindario de Pamplona.

Hace ya algunos años la Universidad encargó un estudio y publicó una guía de la vegetación de la Universidad, en particular la del campus de Arrosadia. Bajo el nombre de «Campus verde» se reflejaba una riqueza arbórea y de sotobosque importante que merecía ser explicada y conocida de una manera accesible, rigurosa y gráfica.

Una vez comprobada la diversidad de la flora, resulta bastante evidente que en este campus también podría haber otros elementos dignos de consideración. Se percibe, así, que nuestros espacios verdes se han ido configurando como lugar de asiento permanente y temporal de una variedad notable de aves. Este libro quiere recoger toda esa riqueza de una manera lo más rigurosa y a la vez divulgativa posible, para que cualquier persona que recorra el campus de Arrosadia pueda disfrutar de este patrimonio natural que tenemos el privilegio de albergar.

Un estudio de avifauna plantea, sin embargo, algunos condicionantes. No todas las aves están todo el tiempo en un lugar, ni a lo largo de todas las estaciones, ni se distribuyen por igual en todos los posibles hábitats. En primer lugar, por tanto, el estudio tenía que hacerse a lo largo de un período razonable de tiempo, donde se contemplaran todas las estaciones del año. Y en segundo lugar había

Nafarroako Unibertsitate Publikoak hiru campus ditu: Arrosadikoa eta Osasun Ikasketen Fakultatekoa Iruñean, eta Tuterakoa. Arrosadikoan kokaturik daude Unibertsitateko irakaskuntzarik gehienak, bai eta kudeaketa ere, eta hantxe ere naturgune zabal bat dago, ongi zaindua; poliki-poliki, gainera, bizikidetzarako tokia izatera iritsi da unibertsitate erkidegoarentzat eta, paseoan ibiltzeko inguru ederra, Iruñeko auzokideentzat.

Duela zenbait urte, Unibertsitateak bertako landaretzari buruzko azterlan bat enkargatu eta gida bat argitaratu zuen. Hura, bereziki, Arrosadiko campuseko landaretzari buruzko gida izan zen. Horrela, «Campus berdea» izenburupean, ederki erakutsi zen zuhaitzetan eta oihanpean dagoen aberastasun nabarmena, eta merezi zuen hura guztia zehatz, argi eta era grafikoan azaldu eta ezagutzea.

Behin landaretzan dagoen aberastasunaz jabetu ondoren, begi-bistakoa da aintzat hartzeko moduko beste gauza batzuk ere egon litezkeela gure campusean. Izan ere, gauza nabarmena zen hegazti kopuru handi eta askotariko bat finkatzen ari zela gure berdegunean; batzuk betirako, eta besteak, aldi baterako. Liburu honek, bada, ahalik eta zorrotzen bildu nahi du aberastasun hori guztia, ahalik eta jende gehienarengana iristeko moduan, Arrosadiko campusean dabilen edonork bertatik bertara goza dezan gurean dagoen natur ondare nabarmena.

Hegaztiei buruzko azterlan oro, ordea, baldintza batzuei lotuta dago. Izan ere, hegazti guztiak ez daude toki berean denbora osoan, ezta urtaro guztietan ere, eta ez daude berdin banatuta habitat guztietan. Lehenik eta behin, beraz, azterlana zentzuzko epealdi batean egin beharra zegoen, urtaro guztiak kontuan hartuta. Eta bigarrenik, hainbat behaketa-toki ezarri behar



que considerar diversos puntos de observación, acordes a las diferentes modalidades de hábitat o a contextos de mobiliario urbano más favorables a unas u otras especies. Como en su día con el estudio de las especies vegetales, un trabajo de este tipo sólo podía ser realizado por expertos, en este caso ornitólogos. La Sociedad de Ciencias Naturales Gorosti cuenta con una larga trayectoria en este sentido, y con una sección de ornitología desde donde se dirigen la práctica totalidad de los estudios de avifauna que se desarrollan en Navarra para todo tipo de proyectos locales e internacionales.

El planteamiento, por tanto, fue de un estudio de la avifauna a lo largo de un año entero, destinado a una publicación divulgativa pero seria y rigurosa. Esa tarea se inició en el otoño de 2012 y concluyó en el otoño de 2013; el resultado es este libro. Este estudio lo ha desarrollado de manera directa Gonzalo Deán Oroz, miembro de la indicada sección en la Sociedad Gorosti, con la colaboración de otros ornitólogos. Es también el autor de casi todas las fotografías que, en su mayor parte, proceden de las propias observaciones en el campus.

La Universidad Pública de Navarra siempre ha tenido un particular empeño en el cuidado de sus áreas verdes. No se trata solamente de una cuestión estética, que podría serlo, sino de la convicción de que los espacios naturales tienen un valor cultural y humano muy relevante. Disfrutar, proteger y aprender a convivir con la naturaleza es parte indisociable de la vida humana, y conocerla y apreciarla es el primer paso para ser respetuosos con ella y con el medioambiente. Hubiera sido muy deseable poder plantear un estudio así para la totalidad de la universidad, abarcando todos los espacios vinculados al propio campus de Arrosadia, al otro lado del Sadar, más el campus de Tudela

ziren, habitat modalitateen araberakoak edo hiri-altzariek osaturiko testuinguruen araberakoak, espezie batzuek habitat bat edo beste edota testuinguru bat edo beste nahiago izaten baitute. Landare-espeziei buruzko azterlanean bezala, horrelako lan bat adituek bakarrik egin zezaketen; oraingo honetan, ornitologoek, hain zuzen ere. Gorosti Natur Zientzi Elkarteak ibilbide luzea eta oparoa egina du arlo horretan, ez alferrik elkarteko ornitologia atalak zuzentzen baititu, tokiko eta nazioarteko proiektu mota guztientzat zuzendu ere, Nafarroan egiten diren hegazti-azterlan gehien-gehienak.

Planteamendua, beraz, argi zegoen: hots, hegaztien gaineko azterlana urte osoan egitea, zertarako eta zabalkundeko argitalpen serio eta zehatz bat plazaratzeko. Lana 2012ko udazkenean hasi eta 2013ko udazkenean bukatu zen; emaitza eskuartean darabilzun liburu hauxe da. Azterlana Gonzalo Deán Orozek garatu du zuzenean. Gorosti Elkarteko aipatu ataleko kide da eta beste ornitologo batzuk izan ditu lankide. Halaber, hark eginak dira liburuan ageri diren ia argazki guztiak. Gehienak, gainera, campusean bertan egindako behaketetan ateratakoak dira.

Nafarroako Unibertsitate Publikoak ahalegin berezia egin du beti bertako berdeguneak zaintzeko. Egia esan, kontu estetiko hutsa izan zitekeen, baina puskaz haratago doa, Unibertsitatea guztiz sinetsita baitago naturguneak kultur eta giza balio nabarmen-nabarmenaz jantzita daudela. Horrenbestez, giza bizitzari berez datxekion natura gozatu, babestu eta harekin bizitzen jakitea, eta natura ezagutu eta maitatzea da hura eta ingurumena errespetatzeko lehen urratsa. Horrelako azterlan bat unibertsitate osoan egitea izanen zen onena, hau da, Arrosadiko campusari lotuta dauden inguru guztietan egitea, Sadar errekaz bestaldean, gehi Tuterako campusean,

e incluso el sencillo jardín de Ciencias de la Salud, pero el plan resultaba demasiado ambicioso. Hemos ceñido el trabajo, por tanto, a la parte nuclear de Arrosadia, que coincide además con el ámbito de la guía de vegetación que ya teníamos, y donde también disfrutamos de otros elementos relevantes del patrimonio cultural de la Universidad.

Esperamos que, a partir de ahora, y con esta guía en el bolsillo, toda la comunidad universitaria, y cualquier visitante, pueda distinguir y apreciar mejor la belleza de estas pequeñas y sonoras vecinas del campus: las aves que viven aquí habitualmente y las que pasan y se posan estacionalmente.

bai eta Osasun Zientzien lorategi txikian ere. Asmoa, ordea, munta handiegikoa zen. Lana, beraz, Arrosadiko gune nagusiari lotu zaio, lehendik genuen landaretza-gidarekin bat heldu den inguruari, hain zuzen ere; ahaztu gabe bertan ere badaudela Unibertsitateko kultur ondareko beste elementu nabarmen batzuk.

Une honetatik aurrera, hortaz, gida arras lagungarria izanen zaigulakoan gaude, eta haren bidez, unibertsitate erkidego osoak, bai eta bisitari orok ere, hobeki bereizi eta aintzat hartuko dugu campuseko auzokide txiki eta kantarien edertasuna: hala hemen bizi ohi diren hegaztiak nola urtaro jakin batzuetan pasatzen eta pausatzen direnak.

Pág. 13: Imagen del campus de Arrosadia. Edificio las Sóforas; escultura *Ritmo vital* de Henri Lenaerts
Pág. 14: Campus de Arrosadia. Vista lateral del Aulario

13 or.: Arrosadiko campuseko irudia. Soforak eraikina; *Ritmo vital* eskultura, Henri Lenaerts-ena
14 or.: Arrosadiko campusa. Ikasgelategiaren alboko ikuspegia









# MIRLO COMÚN
# ZOZO ARRUNTA



**IDENTIFICACIÓN**
Ave habitual y muy común. Tamaño medio. Machos completamente oscuros con pico amarillo y estrecho anillo ocular amarillo en primavera. Hembras más parduzcas.

**HÁBITAT**
Nidificante común en terrenos arbolados, incluso urbanos, matorral, aunque prefiere los bosques planifolios.

**EZAUGARRIAK**
Ohiko hegaztia da eta oso ugaria. Tamaina erdikoa. Arrak erabat dira ilunak, moko horia dute, eta begi-eraztun estu horia udaberrian. Emeak kolorez arrexkagoak dira.

**HABITATA**
Habia inguru zuhaiztuetan egiten du, baita hiriguneetan ere, edota sasietan, baina baso hostozabalak ditu atseginago.



Latín - Latinez: *Turdus merula*
Inglés - Ingelesez: Common Blackbird




**PRESENCIA**
Ave sedentaria.

**COMPORTAMIENTO**
Normalmente confiado en zonas urbanas, no tanto en ecosistemas silvestres. A menudo canta desde la parte alta de un tejado o árbol forestal. Se alimenta de lombrices, insectos y bayas. Anida en arbustos, enrejados, etc…

**PRESENTZIA**
Hegazti sedentarioa.

**PORTAERA**
Eskuarki, fidakorra da hiri-eremuetan. Ez horrenbeste basa ekosistemetan. Maiz, teilatu-bizkarretik edo baso-zuhaitz baten goialdetik egiten du txio. Zizareak, intsektuak eta baiak jaten ditu. Zuhaixketan, burdinsa-reetan, etab. egiten du habia.

# URRACA COMÚN
# MIKA



**IDENTIFICACIÓN**
Paseriforme córvido de tamaño grande. Ave bien conocida por su habitual presencia en jardines. Blanca y negra, cola muy larga y con iridiscencias verdes. Alas redondeadas y cortas con paneles blancos.

**HÁBITAT**
Cría y es frecuente en las inmediaciones de granjas y pueblos, zonas urbanas y prácticamente cualquier zona con algunos árboles y parcelas de suelo desnudo.

**EZAUGARRIAK**
Tamaina handiko paseriforme korbidoa da. Oso ezaguna da, ohikoa izaten baita lorategietan. Lumaje zuri-beltza du, isats oso luzea, eta iridiszentzia berdeak. Hego biribilduak eta motzak ditu, atal zuriekin.

**HABITATA**
Habia egiten du eta arrunta da etxalde eta herri inguruetan, hiriguneetan eta zuhaitz bakan batzuk dituen edozein lekutan, bai eta zuhaitzik gabeko lursailetan ere.





Latín - Latinez: *Pica pica*
Inglés - Ingelesez: Common Magpie




**PRESENCIA**
Residente.

**COMPORTAMIENTO**
Ave parcialmente gregaria tendiendo a ir en pequeños aunque ruidosos grupos. En invierno forma dormideros de grupos más grandes a los habituales. Vuelo mariposeante, con trayectoria recta y ocasionales planeos. Vigilante pero no tímida, se abate y patrulla céspedes en centros urbanos.

**PRESENTZIA**
Egoiliarra.

**PORTAERA**
Hegaztia hein batean da taldekoia eta talde txiki baina zaratatsuetan ibili ohi da. Neguan, ohikoak direnak baino talde handiagoen etzalekuak osatzen ditu. Tximeleta-eran egiten du hegan, ibilbide zuzenean eta, noizbehinka, planeatzen du. Zelataria da, baina ez herabea, eta erne ibiltzen da hiri-erdiguneetako soropiletan ehizakiaren gainera amiltzeko.